



## **FORMA JURIDIKOA:**

HAURRESKOLAK PARTZUERGOA, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren parte da, azaroaren 11ko 1/1997 Dekretu Legegileko 7.4 artikuluan ezartzen denaren arabera, zeinetan Euskadiko Ogasun Orokorraren printzipio arauemaileen legeari buruzko testu bateratua onartzen den.

Izaera juridiko propioa duen entitatea da, 2003ko irailaren 24an formalki eratutakoa eta Euskadiko Erkidego Autonomoaren administrazioak eta bertako udalerriek osatua. Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazioaren Prozedura Erkidea arautzen duen azaroaren 26ko 30/1992 legeko 6.artikuluko 5. paragrafoak eta Toki Araubide Juridikoaren oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legeko 87. artikuluko diotenaren arabera, borondatez bat egin dute haurreskolen gestio integrala eta Euskadiko Erkidego Autonomoko 3 urtez azpiko haurren hezkuntza eta laguntza zerbitzua aurrera eraman ahal izateko.